



Datuen Babeserako Politika eta Tratamendu Jardueren
Erregistroa www.interbiak.bizkaia.eus-en argitaratzeko

Datuak Babesteko Politika eta Tratamendu Jardueren Erregistroa

Datuak Babesteko Politika honen bidez ematen den informazio guztia aplikagarri zaio gure zerbitzuak kontaktatzen edo erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalez **Interbiak, Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.U.**, erakundean egiten dugun erabilerari.

Gainera, foru-merkataritzako sozietatea garenez, eta Europar Batasuneko 2016/679 Erregelamenduaren (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, aurrerantzean DBEO) 30. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DGEDLO) 31. artikuluan xedatutakoa betez, jarraian, Tratamendu Jardueren Erregistroa argitaratzen dugu, eta bertan datu pertsonalen tratamendu bakoitzaren informazio zehatza aurkituko duzu.

Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.erakundean ematen ditugun zerbitzuen izaera dela eta, tratamenduaren arduradun eta eragile gisa tratatzen ditugu datu pertsonalak. Jarraian, gure tratamendu-jardueren erregistroak argitara ematen ditugu, arduradun (DBEOren 30.1) edo eragile (DBEOren 30.2) gisa dihardugun aintzat hartuz.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.merkataritza-sozietatea da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Foru Sailari atxikia. Erakunde honek Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plana kudeatzea du helburu.

2. Nor da Datuen Babesaren ordezkaria?

Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burutzak betetzen ditu Datuen Babesaren ordezkariaren eginkizunak eta kargua, eta zuzenean dago atxikita Modernizazio, Gobernamentu On Gardentasunerako Kabineteari. Gobernu Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onartu zen Bizkaiko Foru Aldundiko eta sektore publikoko Foru Erakundeetako datuak babesteko ordezkariaren figura sortu, izendatu eta arautzea. Izendapen hori argitara eman zen 2018ko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (99. zk.) eta ofizialki jakinarazi zitzaion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idatzi Lege Aholkularitzara, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera, posta-helbide honetara: Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo.

3. Zeintzuk dira datuak ematean dagozkizun eskubideak?

Datuen babesari buruzko araudiak zenbait eskubide ematen dizkie interesdunei beren datu pertsonalei dagokienez, berehala aditzera emango dizugunez. Eskubide horiek zuzenean balia daitezke, edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez, eta dohainik.

Zure eskubideak baliatzeko, jar zaitetz harremanetan Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.erakundearekin, idatzizko jakinarazpen bat bidaliz helbide honetara, NANaren edo identifikazio-agiri analogo baten fotokopiaz lagundurik:

Kanariar Uharteak, 19, 1. solairua

48015 Bilbo

Zure eskaera jaso ondoren, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados ez bazaude, aldez aurreko erreklamazioa egin ahal izango duzu Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean (Bizkaiko Foru Aldundia, Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo), eta hark bere ebazpena izapidetuko du Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.erakundearen barruan, edo Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

Datuen titularrek eskubide hauek dituzte:

- **Sarbide-eskubidea:** datu pertsonalak ea tratatzen diren eta tratamendu horri buruzko informazio osoa jakiteko eskubidea. Konparazio batera: datu pertsonalak, kategoriak, helburuak, hartzaileak, atxikitze-epea, jatorria, transferentziak eta komunikazioak.
- **Zuzentzeko eskubidea:** datu pertsonal okerrak zuzentzeko eta datu osatugabeak osatzeko ahalmena ematen du.
- **Ezabatzeko eskubidea:** datu pertsonalak ezabatzeko ahalmena ematen du kasu hauetan:
 - Datuak legez kontra tratatzeagatik.
 - Tratamendua edo bilketa eragin zuen helburua desagertzeagatik.
 - Kontsentimendua baliogabetzeagatik (kontsentimendua baldin bada datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa).
 - Tratamenduari aurka egiteagatik.
- **Aurka egiteko eskubidea:** zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal diozu, baldin eta botere publikoen erabilera edo tratamenduaren arduradunaren interes legitimoa bada haren legitimazio-oinarria.
- **Mugatzeko eskubidea:** datu pertsonalen tratamendua mugatzea, bi aldaeratan: datuen tratamendua eten eta datuak atxiki:
 - Tratamendua eteteko eskatzen da:
 - Datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen denean, zehaztasuna egiaztatzeko epearen barruan.
 - Tratamenduari aurka egiten zaionean arrazoi pertsonalak azalduz, aldi berean egiaztatuz arduradunak interes publikoaren edo botere publikoen izenean egindako misioan legitimatuta tratatzen dituela zure datuak, eta zehazten denean arduradunaren tratamendu hori gailentzen dela.
 - Datuak gordetzeko eskatzen da:
 - Tratamendua legez kontrakoa denean eta erabilera mugatzea eskatzen denean, eta ez ezabatzea.
 - Pertsonak erreklamazioak egiteko edo defendatzeko datuak behar dituztenean, baina, aldi berean, arduradunak datu horiek behar ez dituztenean tratamenduaren helburuetarako.
- **Erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izateko eskubidea:** eskubide honek bermatzen du zure gainean ez dela erabakirik hartuko datu pertsonalen tratamendu hutsean oinarrituta (profilak egitea barne), baldin eta tratamenduak ondorio juridikoak baditu pertsonarengan. Hala ere, eskubidea ez da aplikatzen kasu hauetan:
 - Beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamendu-arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo exekutatzeko.
 - Tratamendua kontsentimenduak legitimatuta badago.

4. Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Ez dizkiegu zure datuak hirugarrenei inola ere komunikatuko, zuri alde zure aurretik jakinarazi gabe eta behar den legitimazio-oinarria izan gabe.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu, eta datu pertsonak atzitzeko beharra izaten dute horretarako. Enpresa horiekin sinatu ditugun kontratuek, tratamenduaren eragileari dagozkionek, DBEOren eta DBEDBLOren xedapenak betetzen dituzte. Kontratuon bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik tratatzen dituztela erabilgarri dituzten datuak, ez dituztela inoiz erabiltzen baimendu ez dizkigun helburuetarako eta ez dizkietela datu horiek hirugarren enpresa eta/edo administrazioei komunikatuko kontsentimendurik eskatu gabe. Gainera, eskatzen diegu segurtasun-neurriak ezar ditzatela datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Era berean, kontratatzen baditugu, enpresa eta erakundeek bermatu behar digute indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenak betetzen dituztela.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, egoera jakin batzuetan, datuak administrazio publikoei lagatzeko lege-betebeharra dugu.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

5. Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean aurreikusitakoekin (segurtasun-neurriak).

Tratamendu Jardueren Erregistroa tratamenduaren arduradun gisa eta informazio gehigarria

Jarraian, Interbiak Bizkaia, S.A.M.P. erakundearen egiten dugun tratamendu-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatza jasotzen dugu:

1. Foru-erakundeak aurkeztutako, izapidetutako eta ebatzitako erreklamazioen arreta eta kudeaketa

1.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Autobideen erabiltzaileek ondare erantzukizunagatik edo erantzukizun zibilagatik aurkeztutako erreklamazioak erregistratzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

1.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

1.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa honakoa da: erreklamazioak formulatzea, egikaritzea edo defendatzea (DBEOren 9.2.f). Zure datu pertsonalak tratatzen ditugu Interbiak erakundeari aplikatu dakizkiokeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;
- 3/2010 Foru araua, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen lurralde-plan sektoriala aldatzeko finantzaketa-irizpideei buruzkoa;
- 1/2005 Foru Araua, otsailaren 8koa, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena;
- 2/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa.

1.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna.

1.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Bizkaiko Foru Aldundiari;
- Epaitegiei.

2. Erabiltzaileekiko arreta eta izapideen kudeaketa

2.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Datu pertsonalak tratatzen ditugu Interbiak-ekin izapideak egiteko sistema kudeatzeko; egin diren joan-etorriak kontsultatzeko eta deskargatzeko; izan diren edo eskura daitezkeen deskontuak eta laguntzak ezagutzeko; eta komunikazioak jasotzeko.

2.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

2.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Interbiak erakundeari aplikatu dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Datuen tratamendua legitimatzen duen legea otsailaren 8ko 1/2005 Foru Araua da, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena.

2.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunenak eta/edo haien legezko ordezkariarenak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;

2.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

3. Fakturak

3.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Erabiltzaileek Foru Erakundearen webgunearen bidez edo modu presentzian aurkeztutako faktura-eskaeren arreta eta horien jaulkipena kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

3.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

3.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Interbiak erakundeari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1619/2012 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena;
- 3/2010 Foru Araua, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen lurralde-plan sektoriala aldatzeko finantzaketa-irizpideei buruzkoa;
- 2/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Bizkaiko Errepideei buruzkoa;
- 1/2005 Foru Araua, otsailaren 8koa, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena.

3.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak Interbiak erakundeak kudeatutako autobideen erabiltzaileenak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak.

3.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

4. Kontratisten/azpikontratisten eta hornitzaileen kudeaketa

4.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Administrazio eta eragiketa kudeaketarako eta kontratatutako eta azpikontratutako enpresekiko legezko betebeharrak betetzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

4.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

4.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1. b) eta Interbiak erakundeari aplikatu dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duena;
- 8/1972 Legea, maiatzaren 10ekoa, autobideak emakida-erregimenean eraiki, kontserbatu eta ustiatzeari buruzkoa.

4.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak kontratatutako eta azpikontratutako enpresetako langileenak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Akademikoak eta profesionalak;
- Datu kategoria bereziak: osasun datuak.

4.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Bizkaiko Foru Ogasunari;
- Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateei;
- Kanpoko prebentzio-zerbitzuei (osasunaren zaintza);
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta autonomia erkidegoetako kanpo kontroleko organoei.

5. Giza baliabideen kudeaketa

5.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Interbiak erakundeko langileen lan-harremanak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

5.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

5.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEOren 6.1. b) eta Interbiak erakundeari aplika dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;

- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena;
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duena;
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

5.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak gure langileek emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Bankukoak eta ondare ekonomikokoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Akademikoak eta profesionalak;
- Datu-kategoria bereziak: osasun-datuak, sindikatu-afiliazioa.

5.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazioak egiten dizkiegu honakoei:

- Lan istripuen eta lanbide gaixotasunen mutualitateei;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuei (osasunaren zaintza);
- Finantza eta aurrezki erakundeei;
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari;
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari;
- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari;
- Bizkaiko Foru Ogasunari.

6. Hautaketa-prozesuak

6.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Hautagaiak hautatzeko prozesuak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

6.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

6.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datuak tratatzeko legitimazioa interesdunak eskatutako kontratu aurreko neurriak aplikatzea (DBEOren 6.1.b.) eta interesdunaren adostasuna (DBEOren 6.1.a.) dira. Emandako adostasuna edozein unetan kendu ahal izango du Interbiak erakundearekin harremanetan jarritz.

6.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak hautaketa-prozesuetako hautagaienak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;

- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Akademikoak eta profesionalak.

6.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Hautaketa-prozesuen kudeaketan tratatutako datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.

7. Sarreren eta irteeren erregistroa

7.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Interbiak erakundearen aurkeztutako dokumentuen sarrera eta irteeren erregistroa eta jarraipena egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

7.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

7.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c) tratatzen ditugu.

7.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunak berak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Interbiak erakundearen aurrean dokumentazioa aurkezten duten pertsonen identifikazio eta/edo harreman datuak baino ez ditugu tratatzen.

7.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

8. Bideozaintza bidesarrietan

8.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Bidesarien eta bide-azpiegituren segurtasuna bermatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

8.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildutako datuak hilabeteko epean gordeko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 22.3 artikulua araberak.

8.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzeko (DBEOren 6.1.e) Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legeari dagokionez, tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

8.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak beren ibilgailuekin errepideen zati jakin batzuetatik zirkulatzen ari diren pertsonenak eta Interbiak erakundearen kudeatutako bidesarienak dira.

Identifikazio- eta harreman-datuak baino ez ditugu tratatzen.

8.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei
- Epaitegiei.

9. *Kontseiluaren kudeaketa*

9.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Administrazio kudeaketarako eta Kontseiluko kideei buruzko legezko betebeharren kudeaketarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

9.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

9.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Datu pertsonalak tratatzen ditugu Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoa eta Interbiak erakundeari aplikatu dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.).

9.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak Administrazio Kontseiluko kideek emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

9.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Merkataritza erregistroari;
- Notariotzei.

10. *Administrazio eta kontabilitate kudeaketa*

10.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Entitatearen administrazio, zerga eta kontabilitate kudeaketa egiteko erabiltzen ditugu zure datu pertsonalak.

10.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

10.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak honako lege hauek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena;
- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, uztailaren 4ko 16/2007 Legearen azken xedapenetatik lehenengoarekin lotuta;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duena.

10.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugu datuak erabiltzaileenak, hornitzaileenak eta enpresa pribatuetako ordezkarienak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak;
- Banku eta ondare ekonomikoak;
- Ondasunen eta zerbitzuen transakzioen datuak.

10.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ondoren adierazten diren datu-komunikazioak lehen aipatutako legeen betebeharrak betetzean oinarritzen dira.

Zehazki, datuen komunikazio hauek egiten dizkiegu honakoei:

- Bizkaiko Foru Ogasunari;
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta autonomia-erkidegoetako kanpo kontrolleko organoei.

11. **Harreman, kontsulta eta erreklamazioen kudeaketa**

11.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Interbiak erakundearekin "Kontaktua" atalaren bidez harremanetan jartzen diren pertsonak egindako kontsultak eta erreklamazioak kudeatzeko, tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

11.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

11.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak honako lege hauek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

11.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunak berak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak;
- Banku eta ondare ekonomikoak;
- Ondasunen eta zerbitzuen transakzioen datuak.

11.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

12. Kontaktuen kudeaketa DanonArtean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakundeen arteko harreman-eremu korporatiboetan

12.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakundeen arteko harreman-eremu korporatiboetan jarduketak egiteko harremanak kudeatzeko.

12.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

12.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak honako lege hauek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzkoa.

12.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak erakundeetako harremanetarako pertsonenak, erabiltzaileenak eta hornitzaileenak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak.
- Enplegu- eta formakuntza-datuak.

12.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkie.

13. Compliance: datu pertsonalen tratamendua, salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena)

13.1. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Compliance: Datu pertsonalen tratamendua salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena). Bereziki, etika- eta jokabide-kodea, jazarpen-protokoloa edo indarrean dauden beste protokolo edo araudi batzuk ez betetzeari buruzkoak.

13.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu zure datuak.

Emaitza negatiboa izan duten ikerketen kasuan eta salaketa ez onartzearen eta artxibatzearen kasuan, datu pertsonalak gordetzeko epea hiru hilabetekoa izango da.

13.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa;
- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

13.4. Zein datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak langileengandik datoz, bai salatzaileengandik/kaltetuengandik, bai lekukoengandik eta salatutakoengandik.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikagarriak eta harremanetarakoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguaren xehetasunak;
- Zigor eta arau-hauste penalei buruzkoak.

13.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Salaketa ikertzeko eta kudeatzeko eskumena duen organoari edo agintaritzari.
- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei.
- Organo Judizialei.

Tratamendu Jardueren Erregistroa tratamenduaren eragile gisa, eta informazio gehigarria

Jarraian, DBEOren 30.2 artikuluko xedapenak betez, Interbiak Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.U. erakundeak, tratamenduaren arduradun den aldetik, datu pertsonalen inguruan egiten duen tratamendu bakoitzari buruzko informazio xehatua jasoko dugu.

1. Bide-azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsona fisikoentzako dirulaguntzak kudeatzen laguntzea

1.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Erakunde honek, tratamenduaren eragile gisa, datuen tratamenduak egiten ditu, eta horien arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapeneko Foru Saileko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia da (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo).

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo) Burutzak du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

1.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.), eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzea (DBEOren 6.1.e.) da.

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, eta haren hitzaurreak kontzertu ekonomikoaren 48. artikuluan hori arazoitzen du;
- 3/2010 Foru Araua, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen lurralde-plan sektoriala aldatzeko finantzaketa-irizpideei buruzkoa;
- 203/2019 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, bide-azpiegiturak erabiltzen dituzten eta zuzenean kudeatzen dituzten eta foru-aldundien titulartasuneko bidesarien mende dauden pertsona fisikoentzako dirulaguntzen 2020rako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena;
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, dirulaguntzen erregelamendua onartzen duena;
- Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea.

2. Errepideen arloko espedienteak: aurretiazko jarduketan espedienteen kudeaketa, zehapenak, baimenak, kalteen ordaina eta ondare-erantzukizuna

2.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Erakunde honek, tratamenduaren eragile gisa, datuen tratamenduak egiten ditu, eta horien arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapeneko Foru Saileko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia da (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo).

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo) Burutzak du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

2.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.), eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzea (DBEOren 6.1.e.) da.

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;
- 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiko bizikleta bideei buruzkoa;
- 2/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa.

3. Autobideak kobratzeko sistemen kudeaketa, ez ordaintzeagatiko eta bidea oztopatzeagatiko salaketak egitea

3.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Erakunde honek, tratamenduaren eragile gisa, datuen tratamenduak egiten ditu, eta horien arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapeneko Foru Saileko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia da (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo).

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo) Burutzak du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

3.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEOren 6.1.c.), eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzea (DBEOren 6.1.e.) da.

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena;
- 3/2010 Foru araua, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen lurralde-plan sektoriala aldatzeko finantzaketa-irizpideei buruzkoa;
- 2/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Bizkaiko Errepideei buruzkoa;
- 1/2005 Foru Araua, otsailaren 8koa, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena;
- 8/1972 Legea, maiatzaren 10ekoa, autobideak emakida-erregimenean eraiki, kontserbatu eta ustiatzeari buruzkoa.
- BFAren eta BHA, S.A.ren arteko hitzarmena, 2002ko abenduaren 27koa, azpiegitura publikoen arloan BHA, S.A.k egin behar duen gomendioaren jarduketan oinarri arautzaileak garatzeko.

4. Interbiak erakundeak egindako bide-azpiegiturak eraikitzeo obrak kudeatzea

4.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Erakunde honek, tratamenduaren eragile gisa, datuen tratamenduak egiten ditu, eta horien arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapeneko Foru Saileko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia da (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo).

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo) Burutzak du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

4.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa da betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren esparruan (DBEOren 9.2.b). Zure datu pertsonalak ere tratatzen ditugu interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko (DBEOren 6.1.e) eta Interbiak erakundeari aplikatu dakizkikeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c).

Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1/2005 Foru Araua, otsailaren 8koa, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena;
- 3/2010 Foru Araua, urriaren 26koa, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta errepideen lurralde-plan sektoriala aldatzeko finantzaketa-irizpideei buruzkoa;
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- 1/1988 Legea, otsailaren 5koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena;

- 8/1972 Legea, maiatzaren 10ekoa, autobideak emakida-erregimenean eraiki, kontserbatu eta ustiatzeari buruzkoa;
- BFAren eta BHA, S.A.ren arteko hitzarmena, 2002ko abenduaren 27koa, azpiegitura publikoen arloan BHA, S.A.k egin behar duen gomendioaren jarduketan oinarri arautzaileak garatzeko.

5. Bidesaria plana kudeatzea

5.1. Nor da tratamenduaren erakunde arduraduna?

Erakunde honek, tratamenduaren eragile gisa, datuen tratamenduak egiten ditu, eta horien arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Lurralde Garapeneko Foru Saileko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia da (Diputazioa, 7 - 48008 Bilbo).

Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoaren, Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko (Kale Nagusia, 25 - 48009 Bilbo) Burutzak du Datuak Babesteko Ordezkararen rola.

5.2. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa legezko betebeharrak betetzea (DBEO 6.1.c) da. Hona hemen datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1/2005 Foru Araua, otsailaren 8koa, Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia onartzen duen martxoaren 26ko 4/2003 Foru Araua aldatzen duena;
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Interbiak Foru Sozietateari egiten dion enkargua, Bidesaria plana gauzatzeko egiteke dauden jarduketa guztiak gauzatzeko.